
BAT Soziolinguistika Aldizkaria martxan jarri zenez geroztik (1990eko otsaila) joan dira 17 urte. Hasiera EKB (Euskal kulturaren Batzarra) erakundeak eman zion, Jose Luis Enparantza "Txillardegí" zuzendari zelarrik. Helburu nagusia zen: "BATera. BAT-eginik ari gara; bat-eratu gaitzen" idatzi zuen norbaitek, denok gogoan dugun 'Bateginik' kanpaina haren erdian. Eta hemen orain BAT aldizkaria, euskararen aldeko mugimendu herritarra sendotzera eta bateratzera datorrena... Euskararen monopolizazioaren eta manipulazioaren kontrako protesta eginez abiatu zen BAT aldizkaria, aitormen oinarritzko honekin: "Euskaldun -euskal herritar- guztion eta guztiontzat da euskara... Bateragunea izango bada ere, ez da erdigunea aldizkari hau, euskara bera baita euskaldun bakoitzaren eta euskal elkartearen 'erdigunea', Txepetxen hitzez. Erdiguneratze-prozesua da euskararen berreskurapena eta euskaldunon euskalduntzea. Euskal Herriaren BATa historikoa euskara da, izan ere" (BAT Soziolinguistika Aldizkaria, 1: 7, 1990). BAT aldizkariak, bere bilakaeran, helburu hau jarraitu du beti, baita nire zuzendaritzaren pean ere; horregatik komeni zen gogora ekartzea. Baina aldizkariak ezagutu ditu aldaketak ere: 1999. urtean, SEI (Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen) elkarrekin hartu zuen aldizkaria bere gain (31. zenbakiarekin batera), eta 2004an Soziolinguistika Klusterra erakundeak (53.

zenbakiarekin); bestelako aldaketak ere egon dira: 2001ean nik hartu nuen zuzendari izateko ardura, 40. zenbakiarekin batera, eta 2006. urte bukaera arte jarraitu dut, sei urtean zehar, 61. zenbakiarekin bukatuz.

Hasieratik jarraitu dut gertutik aldizkaria, bertan parte hartu ere egin nuen nahiko goiz, 1991. urtean (3/4 zenbakian), horrela esan dezaket nahiko ondo ezagutzen nuela aldizkaria bere zuzendari izateko eskaintza jaso nuenean, baita baietza ematerakoan ere desafio berritan sartuz. Nik pozik hartu nuen erronka hau, nahiz eta bertigo modukoa ere sortu, aldizkariaren bila-kaera aberatsa ezagutzen nuelako; pozik jarraitu dut sei urte hauetan, aldizkariaren garrantziaren jabe nintzelako eta naizelako. Esan dezaket zuzendari rola betetzea ardura handikoa eta oso gertukoa izan zaidala, beti gauzak hobetzeko grina mantendu dudala, bertan jarri ditudala indar, gogo eta maitasun handiak; horregatik, zuzendaritza uzteko erabakia gogorra izan zait. Zuzendaritza utzi nahi izan dut, besteak beste, epealdi berri batean sartu nahi dudalako: alde batetik lasaiagoa izango dena, bestetik beste gauza batzuk egiteko denbora gehiago emango didana; gehiago idazteko, adibidez. Hala ere, ez dut erabat uzten aldizkaria, batzordekide moduan mantenduko naizelako, horretarako Soziolinguistika Klusterrak eta aldizkariaren batzordeak eskatutakoari baietza eman diedalako; horrela, aldizkariaren bilakaera jarraitzea erraza izango zait.

Nire zuzendaritzaren pean gertatu dira aldaketak edo berritzeak ere, ohikoa izaten den moduan; honi buruz hausnarketa sakonik egingo ez badut ere orain, halako azpimarratze apal bat egin nahiko nuke. Adibidez, beti saiatu naiz, aldizkariarekiko, gorago aipatutako helburu nagusiak betetzen: 1) euskal soziolinguistikan bateragune izatea: a) bai partehartzaile antzak bultzatuz: gizarte eta ofizial erakundeak, unibertsitateko eta bestelako ikertzaileak, profesionalki eta bestela euskalgintzan ari direnak, ikuspegi teorikoa eta/edo enpirikoa azpimarratzen dutenak, eta abar; b) baita gai batzuetan, eztabaida garaian, eztabaida gune izatea bultzatuz ere. 2) Euskararen berreskurapena eta normalkuntza erdigune izatea: egoeraren konplexutasuna kontuan hartuz (lurraldetasunari buruzkoa, adibidez), soziolinguistika modu zabalean erabiltzerakoan ikuspegi antzak jasoz (soziologikoa, psikolinguistikoa, psikosoziala, politikoa, zuzenbidekoa, ekonomikoa, ...), egoera aztertzeo gaiak aukeratzekoan, deskribapenak egiterakoan alderdi positiboak/negatiboak eta oraindano/etorkizunean bereiziz, deskribatzeaz gain azalpenak ere adieraziz, bertako eta kanpoko teorizazioa eta esperientziak erabiliz, eta abar. 3) Saiatu naiz aldizkariaren barne estruktura gaurkoztzen, batzordea osatzen adibidez, baita aldizkaria argitaratzeaz arduratu diren SEI eta Soziolinguistika Klusterrarekin ere behar bezalako koordinazioa man-

tentzen, eta aldizkariaren zabalkundea indartzen ere. 4) Ahalegina egin dut nire parte hartzea kualitatiboa izan zedin ere, adibidez zenbaki bakoitzean hasierako "hitzaurre gisa" idazterakoan: lanen arteko lotura eginez, esanahi nagusiak azpimarratuz, teorizazioa erabiliz eta azalpen batzuk emanez, kanpoko esperientziekin gurea erkatuz, eta abar. Saiatzeaz gain, neurri batean lortu ditudala, edo denon artean ditugula, pentsatzen dut.

Nire zuzendaritza lanetan beti izan dut laguntza ona aldamenen: 1) gehienbat koordinatzaileen aldetik: Imanol Esnaola hasieran eta Larraitz Garmendia gerorago, modu kualitatiboan eta ausartean nirekin kolaboratu dutelako, baita koordinatzaile lanetan (bai zuzendari eta batzordekideen artean, baita zuzendari, batzordekide eta lanen egileen artean ere) eraginkorrak izan direlako. 2) Baita batzordekideen aldetik ere: zenbait erabaki hartzerakoan, argitaratu aurretik lanak aztertzerakoan, eta abar. 3) Baita Soziolinguistika Klusterraren aldetik ere, nigan jarri duten konfiantza sentitu dudalako. Guztiei nire esker ona.

Bukatzeo, nahiko nuke adierazi aldizkariari etorkizun luzea, aberatsa eta eraginkorra opa diodala. Horregatik, zuzendari berriari ere ilusio eta gogo handiarekin hastea opa diot, eta ausarta izatea, laguntza ona lortzea, eta aldizkariaren garrantzia handitu ahal izatea ere bai. •

Maria-Jose Azurmendi

Zuzendari ohia

Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net